



ZESTOAKO UDALA

AKTA

Tokiko Gobernu Batzarrak 2020ko uztailaren 7an buruturiko ohiko saioari dagokiona.

Zestoako udaletxean, bi mila eta hogeiko uztailaren 7an, Mikel Arregi Urrutia Alkate jauna mahaiburu delarik, Ruben Alberdi Uranga, Nerea Odriozola Larrañaga eta Garikoitz Mendizabal Etxeberria korporakideak bildu dira.

Idazkari lanetan, Ander Cestona Unanue jauna, Udaleko Idazkari-Kontuhartzailea aritzen da.

1.- INSTANTZIAK:

1.1) L.P.A.k, bere etxe inguruan sortzen den zaratarekin arazoak dituztela dio. Gauetan inguruan ibiltzen diren gazteek zarata ateratzen dute eta ezin izaten dute ondo deskantsatu. Tokiko Gobernu Batzarrak erabaki du Herriko tabernariei tabernak ixteko ordutegia bidaltzea, bai taberna, bai terraza ixteko ordutegiak; eta Ertzantzari arazoaren berri ematea.

1.2) M.H.K.k, P. Tabernak terrazan gauetan izaten den zaratari buruzko kexa aurkeztu du. Tokiko Gobernu Batzarrak erabaki du Herriko tabernariei tabernak ixteko ordutegia bidaltzea, bai taberna, bai terraza ixteko ordutegiak

1.3) R.M.k, A.enpresa lekuz aldatzea eskatzen du. Eskaera kontuan hartuko da eta berri ematen zaio, gaur egun enpresak jarduera baimena eta obra baimena dituela; irekiera baimena da falta dena.

1.4) Villa Anita.

Eraikinaren ikuskaritza bat egiteko pausuak martxan jarriko dira.

1.5) Mardubidea 5. Eman zitzaion epean ez da ezer egin, pausuak emango dira.

1.6) Harrobia, irailean zein pauso juridiko eman daitezkeen aztertzea erabaki da.

1.7) Ibañarrietako A. etxeko obra amaiera.

Ikuskaritza egin da eta ontzat ematen da aurkeztutako dokumentazioa.

1.8) Arroagoiko San Joan kalea 1, A.U.n azken eskaera. Egin den kontsulta informala da eta era berean erantzungo dio arkitektoak.

1.9) Mardu, A.L.S.A.ko txakolindegia proiektua. Hurrengo Hirigintza Batzordean aztertuko da.

1.10) C.E.P., G.S.L.ren izenean, Estazioko industrialdeko Logure enpresako fatxada eraberritzeko obretako udal baimena ematea erabaki da, akordioan zehaztutako baldintzen arabera.

1.11) J.B.A.k, Aizarnan erostekotan dabilen borda baten inguruko hirigintza kontsulta egiten du. Udal arkitektoak erantzungo dio, berreraikitzekotan landa erabilerari lotuta egongo dela.

1.12) C. y R. del U.S.Lk, G. kalea 6-8ko Jabego Elkartearen izenean, Gesalaga kalea 6-8 eraikineko fatxadan konponketa lanak egiteko udal baimena ematea erabaki da, akordioan zehazturiko baldintzen arabera.

1.13) Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailak, 2020ko uztailaren 25ean izango den Goilurak Rallyaren inguruko informazioa igorri du. Berri eman da.

1.14) J.E.U.k, Bekoetxe-merenderoko parkina garbitzeko makina eskatzen du. Ez da baimentzen makina uztea, erabilera pribaturako delako, eta Udalak erabilera publikorako du makineria.

1.15) O.S.Coop.ek, Iraetako Urkaiko hiltegian zenbait obra txiki egiteko baimen eskaera aurkezten du. Eskaera ez dago osatuta. Horregatik, obraren xehetasunak eskatuko zaizkio.

1.16) Zestoako Udalak ikusi du Forjas de Iraeta enpresako fatxadan obrak egiten ari direla. Baimena eskatu duten begiratuko da.

1.17) S.E.S.A.U.

Ur kontagailurik gabe ura erabiltzen ari direla atzeman da. Uraren ordenantzaren arabera dagokion pausoak eta isunak ezarriko zaizkio.

Bestalde, baimendutako eraikuntza lanen ondoan baimenik gabeko obrak egiten ari direla atzeman da. Hirigintza araudiaren araberako zehapen neurriak hartzeko pausoak emango dira.

2.- ALKATETZA EBAZPENAK.- Honako ebazpenen berri eman da:

- 228: Sansinenean egiten ari diren pabiloirako kableak pasatzeko kanalizazioa egiteko obra baimena S.E.S.A.U.
- 229: Gurutzeaga kalea 3 2C etxebizitzako sukaldea eraberritzeko obretako udal baimena I.L.O.
- 230: Baratze parkeko 35 zenbakidun baratzea erabiltzeko baimena M.P.N.
- 231: Aizarnako Etxeberri baserriko teilatua eraberritzeko udal baimena J.M.A.E.
- 232: Orsa S.L. enpresari zehapen espedientea irekitzea Arroako industriagunean udalaren baimenik gabe ur-hartune batetik ura hartu duelako.
- 233: Zestoako "Gurutze" Jubilatuen etxeko taberna-aretoaren ustiapen kontrataziorako dokumentazioa aurkezteko epea luzatzea.
- 234: R.A.U. alkateorde izendatuz.
- 235: Festak bertan behera uzteko dekretua: Arroabea, Arroagoia, Aizarna, Zestoa.
- 236: Lizarraitz auzunea 5ean luzeroa jartzeko baimena M.A.L.
- 237: Urnietako Udalaren ebazpena, M.H.A.ren izendapenari buruzkoa ontzat ematea.
- 238: Komun autogarbigarren kontratazioa hutsik deklaratzeko.
- 239: VidaCaixa SAU Seguros y Reaseguros enpresarekin kontratua ez luzatzeko ebazpena

- 240: Arriskutsua izan daitekeen animalia izateko lizentzia V.A.M.
- 241: Ondartez enpresari Paisaia Ekintza Plana idazteko kontratazioa adjudikatzea.

3.- ELKARRERANTZUN OFIZIALAK

Ez dago.

4.- GALDERA ETA ERREGUAK.

Ez dago.

Eta gai gehiago ez dagoenez, bukatutzat ematen da saioa eguerdik ordubiak eta hogeita hemezazpi direnean, nik neuk, Idazkariak, ziurtatzen dudalarik.

Ander Cestona Unanue,
Idazkaria

O.e.

Alkateak,